

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

## 3616

*IRAGARKIA, zeinaren bidez informazio publikoaren izapidean jartzen baita honako dekretu hau indargabetuko duen dekretu-proiektua: 183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortu eta arautzen dituena.*

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko uztailearen 12ko Aginduaren bidez, aurretiaz onartu da honako dekretu hau indargabetuko duen dekretu-proiektua: 183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortu eta arautzen dituena.

Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedapen orokorrak egiteko ezarritakoaren arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapenek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean edo informazio publikoaren izapidean jarri beharko dira.

Horrenbestez, jendaurrean jartzen da aipatutako dekretu-proiektua hogeitun egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko, eta alegazioak aurkezteko helburuaz, dekretu-proiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoen iragarki-taula elektronikoa ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)) eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren web-orrian ([www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus)).

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailearen 12a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,  
IVAN PEDREIRA LANCHAS.